

Ase ta gose • Gaztagintza urratsez urrats

Berde bizi • Etxeko garbigarren arriskuak

Narrazioa • Joanes Urkixo *Egingo al dugu?*

igandeko

KZ

1995 Egunkaria Urriak 29



Higinia Luz Goñi Aiestaran, Lutz.

H OTZ ARI ZUEN NEGU MINEKO GOIZ hartan Parisen, hotz hezea, behe lainoa zuhaitzen gainean pausatua baitzen. Kamioietan zutik, emakumeak oihuka ari zitzaizkien karriketan zeuden herritar bakanen —"Frantsesak gara! Naziek garamatzate!"—, baina hauek ozta-ozta burua altxatu eta azkarrago eragiten zizkieten bernei, lasterrago egiten zuten aurrera. Zentzumenen hirian seguruagoa, komenigarriagoa zen orduan deus ez aditzea, deus ez ikustea, soilik horrela jasan zitekeen-eta hiru urte lehenago lanbroa bezala zabaldua zen izua. Izua atxiloketei, kartzelari, torturari, ezezagunari, goizak ziztu bizian zeharkatzen zituzten kamioi militarrei. 1943ko urtarrilaren 24 hartan Romainvilleko presondegitik Auschwitz-eko kontzentrazio-esparrura zihoazen andreak, ordea, animoso zeuden. Nazien okupazioaren kontrako erresistentzian aritutakoak denak, komunistak ziren gehienak, borrokaren sufrimenduekin ohi-tuak. Abestu eta guzti egiten zuten batzuek.

Tren geltokian jaitziaz eta konboi bateko azken lau bagoietan sartu zituzten, nola ganadua. Ogia eta saltxitxo puska bana. Bazka. Tren haren norabidea ezezaguna zuten, eta ausartenek paper batean idatziriko helbideak jaurtitzen zituzten ateetako zirrikietatik, noizbait etxekoek jakingo zuten esperantzaz, baina Parisko karriketan zebiltzan bakarrek begiak behekitzen zituzten ikusi, entzun orduko. Konboi hura beste bat zen, beste bat gehiago. Bidaia osoan, →

LUTX

(Zirauki 1906 - Auschwitz 1943)